



DONOSTIAKO UDALAREN MUSIKA ETA DANTZA ESKOLAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO I PLANA

2022/23 - 2025/26



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Musika eta Dantza Eskola



AURKIBIDEA

1

Sarrera eta aurrekariak

3. orrialdea

2

Lege esparrua

5. orrialdea

3

Egiteko Prozesua

6. orrialdea

4

Hasierako diagnostikoa

8. orrialdea

5

Planaren egitura

9. orrialdea

6

Jarduera ardatzak

10. orrialdea

1. ardatza: Plangintza, Kudeaketa, Giza Baliabideak eta Baliabide Ekonomikoak
10. orrialdea

2. ardatza: Hezkuntza jarduera eta sentsibilizazioa
11. orrialdea

3. ardatza: Plazen eskaintzaren kudeaketa
13. orrialdea

4. ardatza: Espezialitate feminizatuak
14. orrialdea

5. ardatza: Espezialitate maskulinizatuak
15. orrialdea

7

Lan plana eta Berdintasun Batzordea

16. orrialdea

8

Berdintasun Planaren komunikazioa eta hedapena

17. orrialdea

9

Jarraipena eta adierazleak

18. orrialdea

SARRERA ETA AURREKARIAK




2015. urtetik, Donostiako Udalaren Musika eta Dantza Eskola Berdintasun gaiak lantzen ari da Donostiako Udaleko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana ardatz hartuta.

Aurrera eraman diren ekintzen artean lehena, BERDINTASUN BATZORDEAREN eraketa izan zen. Batzorde honek, genero ikuspegiaren aldeko ekintzen diseinua, inplementazioa eta jarraipena ditu helburutzat.

Sorreratik berdintasunaren alde aritu da lanean, egindako ekintzen artean garrantzitsuenak, ondorengoak dira:



- 
- Emakume konpositoreak ikusarazi eta beraiek sortutako obrak Eskolak antolatutako kontzertuetan jotzea.
 - Berdintasuna txertatzeko ikastaroak egitea.
 - Musika interpretazioko edo konposizioko lehiaketetako epaimahaiak orekatuak izan daitezen lan egin da.
 - Lehiaketetan emakume konpositoreen obrak jo daitezen bultzatu da.
 - Musika eta dantzan emakumeen ikusgarritasuna bermatzeko hitzaldiak eta kontzertuak aurrera eramán dira.
 - Mutilak dantza egitera bultzatzeko kanpainak abian jarri dira.
 - Musika modernoan emakumeen ikusgarritasuna eta parte hartzea bultzatzeko, emakume irakasleen combo-a sortu da.
 - Kanpo zein barne komunikazioan erabiltzen diren irudi zein hizkuntza, ez-sexista izan dadin lan egin da.
 - Eskolako memorian, berdintasun adierazleak txertatu dira.
 - Eskolako AFA dokumentuan sexu desoreka dauden espezialitateetan neurri zuzentzaileak txertatu dira ekintza positibo bezala.
 - Musika eta Dantza Eskolak dituen hitzarmen eta lan eskaintza publikoetan berdintasun klausulak txertatu dira.

Hau guztia eta beste hainbat ekintza aurrera eramateko, aurrekontuan “partida moreak” sortu dira, hau da, berdintasunarekin zerikusia duten ekintzak aurrera eramateko diru kopuru bat zehazten da urtero, ekintzak aurrera eramán ahal izango direla ziurtatzeko.

Argi dago beraz, Eskola honek apustu bat egin duela berdintasun edo genero ikuspegia txertatzeko Eskolako eguneroko zereginetan, HEZKIDETZA arloan duen konpromezuari lotuta. Berriozarko Udal Musika Eskolan hezkidetza lantzeko irizpideetatik abiatuta, jardunbide egokien dokumentu propio bat landu da.

Erreferentziako dokumentua: [Jardunbide egokiak dokumentu osoa](#)

LEGE ESPARRUA

Atal honetan, Donostiako Udalaren Musika eta Dantza Eskolako Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako I. Planean proposatutako plangintzari eusten dion erreferentziazko esparru arauemaile eta programatiko nagusia jasotzen da. Dokumentu hau azken urteetan onartutako lege testuetan oinarritzen da, eta honako hauek nabarmentzen ditugu:

- Donostiako Udalaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana 2020-2024. ([link](#))
- 2/2015 Foru Araua, martxoaren 9koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa. ([link](#))
- 8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osorik babesteari buruzkoa ([link](#))
- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarrenenez aldatzen duen martxoaren 3ko 1/2022 Legeak aldatua. "Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako Legea ([link](#))
- EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana. ([link](#))
- 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrerako ([link](#))
- Europako Batzordearen Genero Berdintasunerako 2020-2025 Estrategia.. ([link](#))
- UNESCOren 2030 Estrategiaren Genero Berdintasunaren 5. helburua ([link](#))



EGITEKO PROZESUA



Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I Plana prozesu ireki eta arautu baten bidez egin da, 2022an zehar garatu dena, eta hezkuntza komunitate osoari hausnarketarako bideak eta uneak egokitu zaizkio. Prozesu horretan, garrantzi berezia izan du Eskolako langileen parte hartzeak.

Kontuan hartu da Enpresetan berdintasun planak egiteko gida, Ekintzailtzarako, Enpresako Berdintasunerako eta Emakumeen Negoziazio Kolektiborako Zuzendariorde Nagusiak 2021ean egindakoa. Gai horrek asko erraztu du galdetegiak egitea.



→ 1. FASEA: DOKUMENTUAREN HASIERA

Lege Esparrua, Donostiako Udalaren ingurune korporatiboko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako beste Berdintasun Plan batzuk eta Eskolako Berdintasun Batzordeak egindako aurreko diagnostikoak oinarri hartuta, Berdintasun Batzordeak zirriborro tekniko bat garatu zuen, 2. faserako oinarri gisa balioko duena, 2022ko irailetik aurrera.



2. FASEA. EKARPENEI IREKITAKO ZIRRIBORROAREN INFORMAZIOA, KONTRASTEAREN ETA AZALPENA

2021/22 ikasturtean egindako zirriborro teknikitik abiatuta, lan saio/taier batzuk egin dira eskolako langileekin 2022ko irailean, eta plana tresna hauek erabiliz garatu da:

1. Ikastaroa/Berdintasun tailerra Eskolako irakasle eta langileentzat (2022ko iraila).
2. Informazioa eguneratzeko galdetegiak:
 - a) [Langileak kudeatzeko politikei buruzko galdetegiak](#)
 - b) [Langileentzako galdetegia](#)
3. Planaren zirriborroa bidaltzea, kontsultarako eta parte hartzeko.
4. Ekarpinak jasotzea eta Planean sartzea.



3. FASEA. ESKOLAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO I PLANA ONARTZEA

Ekarpen guztiak Erakunde Autonomoaren Berdintasun Batzordera bidaliko dira proposamenak aztertzeko eta txertatzeko, 2022/23 ikasturtea amaitu baino lehen Artekarrizta Kontseiluak bidaltzeko onar dezan.





HASIERAKO DIAGNOSTIKOA

Azken urteetan onartutako lege testuen azterketaz, Berdintasun Batzordearen lanaz eta bertan egindako analisiez gain, plan hau idazteko prozesuan datuak bildu eta dokumentu hauen emaitzak aztertu dira:

- [2022/23 ikasturteko matrikularen datuak](#)
- [Langileak kudeatzeko politikei buruzko galdetegiak](#)
- [Langileentzako galdetegia](#)

Horrekin guztiarekin, Donostiako Udalaren Musika eta Dantza Eskolako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I Plana egituratzen duten sei jarduera ardatzetan sailkatu diren lehentasunak, helburuak eta adierazleak zehazten dituzten ondorioetara iritsi gara.

PLANAREN EGITURA

Berdintasunerako diagnostikoa egin ondoren, jarduera ardatz batzuk lehenetsi dira, eta horietan helburu orokorrak eta adierazleak txertatu dira. Jarduera ardatz horiek erakunde autonomoaren plangintza estrategikoan integratu beharko dira, eta sistematikoki hedatuko dira ikasturtearen kudeaketa plangintzaren bidez (gaur egun, TETRA tresnaren bidez).

Halaber, hilero egingo da jarraipena, ikasturtearen ebaluazio memoriaren bidez balioesteko.

Erakunde autonomoaren ikasturte bakoitzaren plangintzaren bidez, plan honetan jasotako helburu eta adierazleei lotutako ekintza egokiak finkatu beharko dira, eta horiek eskolaren Kudeaketa Planean, Ebaluazio Memorian eta Plan Estrategikoan islatuko dira.

ESTRATEGIA PLANA 2022-2025 ▼ HELURU ESTRATEGIKOAK		IKASTURTEKO KUDEAKETA PLANA IKASTETXEAREN OROITIDAZKIA			
		TETRA 2022-23	TETRA 2023-24	TETRA 2024-25	TETRA 2025-26
ESKOLAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO I PLANA	1. ARDATZA Plangintza, Kudeaketa, Giza Baliabideak eta Baliabide Ekonomikoak	Adierazlea	Adierazlea	Adierazlea	Adierazlea
	2. ARDATZA Hezkuntza Jarduera eta Sentsibilizazioa	Adierazlea	Adierazlea	Adierazlea	Adierazlea
	3. ARDATZA Ikasle plazen eskaintzaren kudeaketa	Adierazlea	Adierazlea	Adierazlea	Adierazlea
	4. ARDATZA Espezialitate feminizatuak	Adierazlea	Adierazlea	Adierazlea	Adierazlea
	5. ARDATZA Espezialitate maskulinizatuak	Adierazlea	Adierazlea	Adierazlea	Adierazlea

JARDUERA ARDATZAK

1. ARDATZA: PLANGINTZA, KUDEAKETA, GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE EKONOMIKOAK



JUSTIFIKAZIOA:

Badira gai orokor batzuk Erakunde Autonomo osoari eragiten diotenak eta kontuan hartu behar dira kudeaketa orokorraren baitan.

ARDATZ HONEN HELBURUAK:

1. Berdintasun politikak sartzea eskolako kudeaketa dokumentu adierazgarrietan: EHP, Kudeaketa Plana, Memoria, Jardunbide Egokiak, Komunikazio Plana, haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean erabat babesteko protokoloa...
2. Kontratazioan eta oposizio oinarrietan genero ikuspegia kontuan hartuko dela bermatzea, indarrean dagoen legeriaren arabera.
3. Langileei berdintasunari buruzko prestakuntza ematea, bertaratutakoen artean 10etik 8 baino puntuaketa altuagoko balorazioa lortzea ahalbidetuko duen kalitate maila lortuz.
4. Planifikatutako ekintzak gauzatu ahal izateko aurrekontu nahikoa ahalbidetzea.
5. Udal irizpideen eta zerbitzuaren aukeren barruan, langileentzako kontzilio neurriak aztertzea eta bultzatzea.
6. Epaimahaietan, lan batzordeetan eta eskolaren funtzionamendurako kide anitzeko organoetan parekidetasuna sustatzen jarraitzea.
7. Eskolako kudeaketa prozesuetan berdintasun adierazleak ezartzea eta mantentzea.



→ 2. ARDATZA: HEZKUNTZA JARDUERA ETA SENTSIBILIZAZIOA



JUSTIFIKAZIOA:

Hezkuntza komunitatea sentsibilizatu nahi da genero ikuspegia irakaskuntzan eta praktika artistikoan txertatzeko beharraz, hezkuntza ekintza bakoitzak genero ikuspegia txerta dezan.

Hezkuntza, norbanakoen sozializazio prozesu bezala ulertuta, bada gizabanakoek ezagutzak, konpetentziak eta jarrerak bereganatzeko prozedura (trasmisioa), baina, era berean, kontzientziario kultural bat ere bada, non aurrekoen jakintza islatzeaz gain birsortu egiten den. Genero ikuspegia bertan sartzeak, beraz, konpromiso argia eskatzen du HEZKIDETZArekiko, eta hezkuntzako esku hartze oren eragina kontuan hartzeko beharra, desberdintasunak ez errepikatzeko, aldaketa-tresna bihur dadin.



ARDATZ HONEN HELBURUAK:

1. Komunikazio eta hausnarketa metodoak eta espazioak sortzea, irakaskuntzan gertatzen diren genero desberdintasuneko egoera eraginkorrei buruzko errealitateak lantzeko.
2. Azaroaren 25eko eta martxoaren 8ko asteetan musikarekin eta dantzarekin lotutako jarduerak zabaltzea:
 - a) Indarkeria Matxisten kontrako Nazioarteko Eguna (azaroaren 25a), mundu osoan emakumeen aurka egiten den indarkeria salatzen eta herrialde guztietan horiek desagerrarazteko politikak eskatzeko.
 - b) Emakumeen Nazioarteko Eguna (martxoaren 8a). Eskubide berdintasunaren alde emakumeek aspaldidanik egiten duten borroka gogoratzeko eguna.
3. Emakumezko konpositore eta interprete nabarmenen erreferentzien eta material berriaren zerrenda bat sortzea, konpositoreak irakasleen eguneroko lanean integratzea errazteko: entzunaldiak diseinatzea, taldeentzako eta ensemblerako obrak...
4. Liburutegiari emakume egile eta interpreteen materiala eta berdintasun gaiak lantzen dituzten materialak ematea (Liburutegi Morea).
5. Eskolako kanpo eta barne komunikazioan erabilitako idatzizko eta ikus-entzunezko hizkuntza ez-sexistak izan daitezen lan egiten jarraitzea.
6. Sentsibilizazio ekintzak, txistua emakumeen praktikatara ere tresna gisa ikustarazteko.



→ 3. ARDATZA: IKASLE PLAZEN ESKAINTZAREN KUDEAKETA

JUSTIFIKAZIOA:

Antolamendu eta Funtzionamendu Araudia (AFA) aldatuta, hezkuntza eskaintzaren 73. artikuluan hura egiteko printzipioak sartzea lortu zen, eta, bertan, Eskolan ikasleen banaketaren oreka hobetzeko beharra zehazten da, eskaini beharreko plazei honako ezaugarri zehatzak esleituz. Hori oinarri hartuta, Kudeatzaileak gutxieneko sexuaren ehunekoa duten espezialitateak zehazten ditu, eta neurri positiboa aplikatzen da gehiengoaren kontrako sexuko ikasle berriek lehenetsia izan dezaten, eskolako matrikula sexuari dagokionez orekatzeko.

ARDATZ HONEN HELBURUAK:

1. Irakasgai batean, irakasgai horretako hezkuntza eskaintzan diskriminazio positiboa aktibatzen duen sexu baten matrikularen ehunekoak ezartzea.



→ 4. ARDATZA: ESPEZIALITATE FEMINIZATUAK

JUSTIFIKAZIOA:

Ardatz hori planteatu da gaur egun Dantza irakasgaietan matrikulatuta ditugun mutilen eta gizonen kopurua txikia delako, Eskolan historikoki gertatu den bezala. Era berean, beste irakasgai batzuen joera kontrolatu behar dugu, horiek feminizatzeke arriskua saihesteko.

ARDATZ HONEN HELBURUAK:

1. Eskolan, Dantzan matrikulatzen diren mutil eta gizonen kopurua handitzea ekarriko duten ekintza zehatzak proposatu, aztertu eta ebaluatzea.
2. Bost urteko ikasleentzako neurri zehatzak bultzatzea, hurrengo ikasturterako Dantzan matrikulatzeko motibazioa eta erraztasunak emateko.
3. Berdintasun Batzordeak proposatutako eta aztertutako ekintza zehatzak gauzatzea, feminizatutako irakasgaietan mutilen eta gizonen matrikula handiagoa lortze aldera.



→ 5. ARDATZA: MASKULINIZATUTAKO ESPEZIALITATEAK



JUSTIFIKAZIOA:

Ardatz hau, Dantzakoaren moduan, Musika Modernoko, haize metalezko eta Txistuko irakaskuntzan historikoki ditugun neska eta emakume kopuru txikiagatik planteatu da. Era berean, beste irakasgai batzuen joera kontrolatu behar dugu, maskulinizatzeko arriskua saihesteko.

ARDATZ HONEN HELBURUAK:

1. Musika Modernoan, Metal Instrumentuetan, Txistuan eta Eskolan maskulinizatutzat hautematen diren beste irakasgai batzuetan matrikulatzen diren neskek eta emakumeak gehitzea dakarten ekintza zehatzak proposatzea, aztertzea eta ebaluatzea eskatzen duten irakasgaien urteko azterketa.
2. Berdintasun Batzordeak proposatutako eta aztertutako ekintza zehatzak gauzatzea, irakasgai maskulinizatueta nesken eta emakumeen matrikula gehiago lortze aldera.



LAN PLANA ETA BERDINTASUN BATZORDEA

Eskolako Berdintasun Batzordea arduratuko da eskolako arduradun politikoekin eta teknikoekin batera jarduerak kudeatzeaz, adierazleak kontrolatzeaz eta espero diren emaitzak lortu diren ala ez baliozkotzeaz.

Horretarako, hilerok elkartuko da, proposamenak, gorabeherak eta Erakunde Autonomoan berdintasun gaiekin zerikusia duen edozein gai aztertzeko. Berdintasun Batzordeak informazioa jasoko du eta bere funtzioekin zerikusia duten gai guztiak eztabaidatuko ditu.

Berdintasun Plan hori kontuan hartuko da Erakundearen Plan Estrategikoan, eta urtero hedatuko da, helburu orokorrak ikastaroaren Kudeaketa Planeko helburu espezifikoetan islatuz. Era berean, urtero, erakundearen urteko kudeaketari buruzko azalpen memoria idaztearekin batera, egindako ekintzen eta proposamenen ebaluazioa egingo da, hurrengo ikasturteko plangintzarako kontuan hartuko direnak.



BERDINTASUN PLANAREN KOMUNIKAZIOA ETA HEDAPENA

Berdintasun batzordeak planean lan egin ondoren, plan hori Erakunde Autonomoko langile guztiei aurkeztu zaie, kontsultarako eta parte hartzeko, eta Batzordeak berak amaitu du, bere gogoetekin. Batzordeak, Kudeatzailearen bidez, lehendakariordetzari helarazi dio, Artezkaritza Kontseiluak onar dezan.

Onartu ondoren, langile guztiei eta eskolako erabiltzaileei (ikasleak eta familiak) jakinaraziko zaie, eta herritarren eskura egongo da Eskolaren webgunearen bidez.

Urtero, plan honetan jasotako kudeaketa adierazleak ebaluatuko dira ikastetxearen kudeaketaren ebaluazio memoriaren bidez, eta beharrezko erabakiak hartuko dira hurrengo ikasturterako ekintzak zuzentzeko eta lehenesteko, Kudeaketa Planaren bidez.


Langile berrien harrera-planean Berdintasun Planaren berri eman eta kopia emango da, langile guztiek Eskolaren ildo estrategikoen berri dutela bermatzeko.

Eskola kudeatzeko TETRA tresnaren bidez, lortzen diren emaitzen jarraipena, ebaluazioa eta berrikuspena egingo da, erakunde autonomoaren Kudeaketari buruzko azalpen memorian onar daitezten.

HELBURUAK / ADIERAZLEAK	2022-23	2023-24	2024-25	2025-26
1. ardatza: Plangintza, Kudeaketa, Giza Baliabideak eta Baliabide Ekonomikoak				
Berdintasun politikak sartzea eskolako kudeaketa dokumentu adierazgarrietan: EHP, Kudeaketa Plana, Memoria, Jardunbide Egokiak, Komunikazio Plana, haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean erabat babesteko protokoloa	PECMemoriaPG	MemoriaPG	MemoriaPG	MemoriaPG
Kontratazioan eta oposizio oinarrietan genero ikuspegia kontuan hartuko dela bermatzea, indarrean dagoen legeriaren arabera.	100%	100%	100%	100%
Langileei berdintasunari buruzko prestakuntza ematea, bertaratutakoen artean 10etik 8 baino puntuaketa altuagoko balorazioa lortzea ahalbidetuko duen kalitate estandarra lortuz.	7	7,5	7,75	8,00
Planifikatutako ekintzak gauzatu ahal izateko aurrekontu nahikoa ahalbidetzea.	6000 €	6500 €	7000 €	7500 €
Udal irizpideen eta zerbitzuaren aukeren barruan, langileentzako kontziliazio neurriak aztertzea eta bultzatzea (adierazlea, langileen gogobetetzea item honetan).	6,5	7	7,5	8,00
Epaimahaietan, lan batzordeetan eta eskolaren funtzionamendurako kide anitzeko organoetan parekidetasuna sustatzen jarraitzea.	>%90a	>%90a	>%90a	>%90a
Eskolako prozesuetan berdintasun adierazleak ezartzea eta mantentzea.	---	%60a	%80a	%100a



HELBURUAK / ADIERAZLEAK	2022-23	2023-24	2024-25	2025-26
2. ardatza: Hezkuntza jarduera eta sentsibilizazioa				
Komunikazio eta hausnarketa metodoak eta espazioak sortzea, irakaskuntzan gertatzen diren genero desberdintasuneko egoera eraginkorrei buruzko errealitateak lantzeko. (adierazlea: ekarpenak/ kontsultak/ iradokizunak/ eztabaidak...)	>8	>8	>8	>8
Azaroaren 25eko eta martxoaren 8ko asteetan musikarekin eta/edo dantzarekin lotutako jarduerak zabaltzea.	2	2	2	2
Konpositoreen erreferentzien (Liburutegi Morea) eta material berriaren zerrenda bat sortzea, konpositoreak irakasleen eguneroko lanean integratzea errazteko; entzunaldiak diseinatzea, taldeentzako eta ensemblerako obrak...	1	1	1	1
Liburutegiari emakume egile eta interpreteen materiala eta berdintasun gaiak lantzen dituzten materialak ematea (Liburutegi Morea).	30	40	50	60
Eskolako kanpo eta barne komunikazioan erabilitako idatzizko eta ikus-entzunezko hizkuntza ez-sexistak izan daitezen lan egiten jarraitzea. (antzemandako desadostasunen kopurua)	<5	<5	<5	<5
Sentsibilizazio ekintzak, txistua emakumeen praktikarako ere tresna gisa ikusteko.	1	1	1	1



HELBURUAK / ADIERAZLEAK	2022-23	2023-24	2024-25	2025-26
3. ardatza: Ikasle plazen eskaintzaren kudeaketa				
Irakasgai batean, irakasgai horretako hezkuntza eskaintzan diskriminazio positiboa aktibatzen duen sexu baten matrikularen ehunekoak ezartzea.	30%	30%	35%	35%
4. ardatza: Espezialitate feminizatuak				
Eskolan Dantzan matrikulatzen diren mutil eta gizonen kopurua handitzea ekarriko duten ekintza zehatzak proposatu, aztertu eta ebaluatzea.	1	1	1	1
Bost urteko ikasleentzako neurri zehatzak bultzatzea, hurrengo ikasturterako Dantzan matrikulatzeko motibazioa eta erraztasunak emateko.	---	1	1	1
Berdintasun Batzordeak proposatutako eta aztertutako ekintza zehatzak gauzatzea, feminizatutako irakasgaietan mutilen eta gizonen matrikula handiagoa lortze aldera.	---	1	1	1
5. ardatza: Espezialitate maskulinizatuak				
Musika Modernoan, Metal Instrumentuetan eta Eskolan hautematen diren beste irakasgai batzuetan matrikulatzen diren neskek eta emakumeak gehitzea dakarten ekintza zehatzak proposatzea, aztertzea eta ebaluatzea eskatzen duten irakasgaien urteko azterketa.	---	1	1	1
Berdintasun Batzordeak proposatutako eta aztertutako ekintza zehatzak gauzatzea, irakasgai maskulinizatueta nesken eta emakumeen matrikula gehiago lortze aldera.	---	1	1	1